

42. ALDIZKARIA - 2008ko apirilaren 2a

II. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

2.1. ORDENANTZAK ETA BESTELAKO XEDAPEN OROKORRAK

ANTSOAIN

Antsoaingo Udal Planeko aldaketa puntual xehakaturia, Antsoaingo S-T unitateko 4. lurtatik erabilera zehatzak arautzeko. Behin betiko onespena

Antsoaingo Udalak, 2008ko otsailaren 27an egindako bilkuran, Antsoaingo Udal Planeko aldaketa puntual xehakaturia behin betiko onesteko erabakia hartu zuen, Antsoaingo S-T unitateko 4. lurtatik erabilera zehatzak arautzeko; gaur egun, industriako, merkataritzako eta hirugarren sektoreko erabilera du eta aukera ematen da bertan zerbitzugunearen erabilera egiteko, Vdr-Mutilva, S.L. enpresak eskatuta bultzaturik.

Argitara ematen da, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 76. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Antsoainen, 2008ko otsailaren 29an.-Alkatea, Antonio Gila Gila.

ALDAKETA PUNTUALA, ST SEKTOREKO 4. LURTATIKO ERABILERA ZEHATZEN ERREGULAZIOAN

Antsoaingo Udal Plana (Nafarroa)

1.-Aldaketa puntualaren xedea.

Aldaketa puntualari buruzko dokumentu honen bidez beste modu batera definitu nahi dira Antsoaingo (Nafarroa) ST sektoreko 4. lurtatik erabilera arautzeko duten hainbat ezaugarri.

2.-Aldaketa puntualaren proposamena.

ST sektorerako aurreikusitako erabilera artean, gasolindegia edo zerbitzugunearena sartzen da industriako erabilera duten lurtatik, baina 7. lurtatik barrenean.

4. lurtatik eta aurreikusitako erabilera erregulazioan auzoko dotazio komertzial bat zilegi denez gero, beharrezkoa da zerbitzugune bat jartzea; izan ere, jardura guztiz beharrezkoa da erabilera osatzeko, auzoko merkataritza zentrorako erakargarria delako.

Oraingo dotazio komertzialek zerbitzugune baten beharra dute, non sozietate banatzaileek prezio lehiakorrek aplikatuko baitituzte erregulazioan; erakargarria eta beharrezkoa litzateke merkataritzako ekipamenduak funtzionatzeko.

Irizpide horretan oinarrituta, eta ikuspegi orokor batetik aldaketarik sortzen ez duenez ST sektoreko erabilera zehatz erregulazioan, aldaketa hori egokitzen jotzen dugu Antsoaingo (Nafarroa) Udal Planaren barrenean.

S-T SEKTOREKO 4. LURTATIKO ERABILERA ZEHATZEN ERREGULAZIO ALDAKETA

(10) Baimendua 4 eta 7. lurtatik. Erabilera zehatz erregulazioa.

Taula arau-ematearen laburpena

- Libre Sotoak Beheko sol.,

pribatua (9) erdisotoak solairuak

goiko solairuak

Gasolindegia - Bai (10) Bai (10)

Iragarkia kodea: L0803706